

# Hitzontzi

## Hartzkume

Mayi Ariztia  
Patxi Zubizarretak moldatua



Aspaldi handian, bi espos-esposa oihanean zebiltzala, hartza etorri, eta emakumea eraman zuen. Leize batean atxiki zuen, eta seme bat ere izan zuen harekin, baina mutikoak lau urte bete-tzearekin, leize zuloko harrizarra eskuaz baztertu, eta ihes egitea lortu zuten.

Herrixka batera iritsirik, apaizak hartu zituen eta bera egin zen mutikoaren aitabitxi. Eskolan hasi zelarik, baina, haurrak trukafa hasi zitzaizkion: «Hartzkume, Hartzkume!». Akaberan, mutikoa haserretu, lagun bati zangoetatik heldu, eta harekin zafraldi ederra eman zien zirikatzaileei.

Gazte denboran, herrixkan laketu ez, eta aita-bitxiari adierazi zion mundua eta beldurra eza-

gutu nahi zituela. Apaizak ordaindurik, orduan, arotzak mutikoarentzat ehun kintaleko makila burdinazko bat egin zuen eta gaztea munduan barrena abiatu zen.

Pagadi batean gaindi zihoala, egurretan zebilen gizon bat topatu zuen, eskuaz enborrari heldu, eta pagoak zuztar eta guzti ateratzen zituena. «Ni banauk, baina hi ere bahaiz», pentsatu zuen, eta biek elkar hartu, eta bidean aurrera egin zuten. Hurrena, eskua errota harri batean erdiko zulotik sartu, eta brrr-brrr, airean itzulika zerabilen gizon bat topatu zuten. «Gu bagaituk, baina hau ere baduk zer bait», pentsaturik, hirurek jarraitu zuten mundua eta beldurra ezagutu nahian.

Egun batez, gaztelu huts batera iritsirik, egurgina bazkaria prestatzen utzi, eta Hartzkume eta errotaria ehizara joan ziren. Eguerdi partean gizon xahar bat heldu zen, eskean, eta egurginak esan ziolarik bazuela premia handiagoko lanik, gizon xaharrak ezustean bereak eta asto beltzarenak eman zizkion. Lagunek egurgin porrokatua topatu zuten, baina gertatu zitzaionaz ez zioten hitz erditxorik ere atera.

Biharamunean ber gauza gertatu zitzaion errotariari, baina hirugarren egunean agurea Hartzkumeri agertu zitzaiolarik, honek makila ukaldi bakar batez azpiratu zuen. Gero, gorpua lau puska egin, eta sukaldeko leiho ttitikitik jaurti zituen. Egun hartan bapo bazkaldu zuten hirurek ere eta, nahikoa beldurrik ezagutu ez zutelakoan, munduan aurrera jarraitu zuten.

Bidean barrena, leize bat topatu, eta han barneratzeko gogoia piztu zitzaion. Egurginak, inomixtante, arbolak bihurtuz otar bat prestatu eta, adarñoez osatutako soka batzuen bitartez, Hartzkume bertan jaitsi zuten leizean behera.

Amildegia zuloan atso bat agertu zitzaion. Adierazi zion han ez zela aspaldian pertsonarik barneratu, eta hamahiru gela zeudela. Hartzkume, burdinazko makilazoka, ate bat jo bestea jo, hamabi geletan sartu zen, eta akaberakoan bi neskatila topatu zituen. Erregearen alabak zirela adierazi zioten eta, deabruak eramanik, zortzi urtean preso egonak zirela. Neskatxek zarpina soina zeuzkaten eta bakoitzak oihal zatiño bat eskaini zion, eta batek urrezko pilota bat ere eman zion, geroko seinaleztat.

Neskatxak leize ahora eramanik, goikoek otarrean igo zituzten, baina gero hura dank askatu, eta Hartzkumeren gainera jausi zen. Honek etsi ez, baina, eta atsoaren bitartez jakin ahal izan zuen aterabidea non zegoen.

Egurgina eta errotaria neskatxekin batera heldu ziren hirira, eta alabek aitzakiatu arren bazela beste norbait, erregeak ezkontza prestatu zuen, eta egun berean iritsi zen Hartzkume ere. Plazaren erdira ehun kintaleko makilarekin agerturik, urrezko pilotarekin jostatzen hasi bezain laster antzeman zioten. «Aita, hori da deabruarengandik askatu gaituena!», oihukatu zuten alabek, eta biak ala biak ere besarkada batean bildu zitzaizkion. Hartzkumek soineko puskek eta urre pilota erakutsi zituen eta bai egurgina bai errotaria hamar urteko kartzelaldira zigortu zituzten, zeren faltsian mintzatu baitziren.

Hartzkumek bere denbora pasatu zuen, neba-arrebak balira bezala, erregearen jauregian, haren bi alabekin. Eta hala ez bada, hala gerta dadila.

